

**Testuliburua**

English in Mind 4

**Zure ikastaroa****Ikastaroaren xedea, gai zerrenda zabal batean, zure eraginkortasunez komunikatzeko gaitasuna garatzea da, bai hitzez zein idatziz.**

- Speaking-a praktikatuko duzu rol-joko, gidatutako eztabaida ariketa eta klasean egindako aurkezpenen bidez.
- Writing-a sistematikoki landuko da, eta testu mota desberdinak praktikatuko dituzu, hala nola, biografiak, gutun formal eta informalak, emailak, idazlan diskurtsiboak, laburpenak, prentsa artikuloak, erreportajeak, istorio laburrak edo pelikulen laburpenak.
- Testuliburuan irakurmenerako hainbat material aurkituko duzu, hala nola, artikuloak, testu faktual eta zientifikoak, frogak, formularioak, notak eta gutunak. Hauetako asko, liburu edota aldizkarietako benetazko testu zatiak dira. Iragarpen estrategiak, azaleko zein zehaztasuneko irakurketa bezalako estrategiak, testuinguruaren araberako hitzen esanahien iragarpena eta hiztegi trebetasunak erabiltzera animatuko zaitugu. Klasetik kanpo ere irakurri beharko zenuke. Horretarako, SACen liburuan har ditzakezu maileguan.
- Testuliburuan listening-a lantzeko material ugari aurkituko duzu, hala nola, laburpen txikiak, solasaldiak, eta luzera handiagoko testuak (kontaerak, elkarrizketak eta mintzaldiak). Hauetako asko benetazkoak dira. Era berean DVDetako laburpenak landuko dituzu.
- Zure autonomia garatu beharko duzu- hiztegia, hiztegi trebetasunak, zuzenketa kodeak...-
- Ikastaro hau, FCE prestatzekoa den Senior Level 6 ikastaroaren aurrekoa da. Ikastaro honetan, hainbat erronka aurkituko dituzu, eta erakarpen handiak lor ditzakezu FCE egiteko beharrezkoa den maila komunikatiboa lortzeko.

**Mailaren deskripzioa**

Jarraian ikastaroaren amaieran zein nolako gaitasunak izan beharko dituzun zehazten da.

**Listening**

- Intereseak ditudan gai zerrenda zabal batean informazio faktuala zuzenean ulertzeko gai naiz, eta hizlariak garbi hitzegiten badute, mezu orokorra zein zehaztasun txikiak identifikatzeko gai naiz.
- Gaia nahikoa ezaguna bada, hizlariak argi hitzegiten badute eta hizkuntza maila oso formala ez bada, solasaldi luzeagoak jarraitzeko gai naiz.
- Irrati eta telebista saioetan, gaia nire interesekoa bada eta hizlariak hizkuntza maila standarra erabiltzen badute mezu orokorra ulertzeko gai naiz, eta gainera, esatariaren aldartea, tonua etab... identifikatzeko gai naiz.

**Mintzamen ekoizpena**

- Aurkezpen zehatzak egiteko gai naiz, eta honen inguruan sor daitezkeen galderak erantzun ditzaket aldeztatik zehaztutako plan bat jarraitu gabe.
- Futbol txapelketa bat edo ezagutzen dudan zeremonia bat bezalako prozedurak zehaztasunean azaltzeko gai naiz.
- Nire ikuspuntutik eztabaida bat zehaztasunez izateko gai naiz.

**Mintzamen interakzioa**

- Azkar hitzegiten duten hizlari desberdinekin solasaldiak izan ditzaket, nahiz eta batzutan hauetan sartzeko arazoak izan.
- Ingelesa ama hizkuntza duten pertsonen nik esan nahi dudun ulertzea lor dezaket.
- Nire ama hizkuntzan normalean esaten ditudan gauzak ingelesez ere esan ditzaket.

### Reading

- Nire interesekoak diren gaien inguruko testu gehienak ulertzen ditut, hizkuntza oso espezializatua ez bada edota hiztegia erabili ahal badut.
- Luzera handiagoko testuetan murgil naiteke, hala nola, web orrialdeak, informazio zehatza bilatzeko.
- Gustoko ditudan olerki/abesti asko ulertzeko eta gozatzeko gai naiz, nahiz eta hitz guztien esanahiak ezagutu ez.

### Writing

- Gai desberdinen inguruan idazteko gai naiz, nahiz eta oso ezagunak ez izan; baina oinarrizko hitz eta egituren baitan nago nire ideiak azaltzeko.
- Argi antolatutako eta kohesiboak diren testuak idazteko gai naiz.
- Iritzi garbia dudan gaien inguruan eztabaidatzen den idazlan bat idazteko gai naiz eta bertan nire iritzia azal ditzaket.

### Hizkuntza gaitasunak

- Interesekoak diren gai zerrenda zabal batean doitasunez espresatzeko adina hiztegi daukat, nahiz eta ezagutzen ez ditudan hitz eta espresioak izan.
- Oinarrizko gramatika egiturak doitasunez erabiltzeko gai naiz. Akatsak egiten baditut ere, hauek normalean, ez dute gaizki-ulertzerik sortzen.
- Deskripzio argiak, nire iritzia azaldu eta eztabaidetan parte hartzeko adina maila daukat, modu deigarrian hitzak bilatu gabe eta nahiko esaldi forma konplexuak erabiliz.

Hiztegia	Gramatika
Itxura Lekuen deskripzioa Oporrak “Look at “ eta “see” Hitzen osaketa “Have” “make “ eta “take”	Ohiko jarrera Zehar galderak Gerundioak eta infinitiboak Konparaketak Artikuloak so & such past tenses present perfect modalak – obligazio; behar; baimena past modals Erlatibozko perpausak Too & enough Etorkizuna eta denbora-loturak Balizko egoerak iragan eta orainaldian.